XIV. mendean Nafarroak hainbat lurralde berreskuratu zituen.

Eneko del Castillok, azken 2.200 urteetako Nafarroako lurraldetasuna ikertu, eta atlas batean bildu du. Modu didaktikoan egina da, eta 150 mapa eta irudiz osatua dago. Gai horri buruz egin den lanik «osoena» dela dio editoreak.

Nafarroa: lurraldea, estatua eta hizkuntza

2016 ekainak 10

Asier Garcia Uribarri

Ebrotik Garonara. Horiek ziren baskoien mugak Ptolomeo, Estrabon eta Julio Cesar historialari klasikoen arabera. Geroztik, euskaldunen mugak aldatuz joan dira, 1814an egungo Nafarroako mapa ezarri zuten arte. Eneko del Castillo historialariari ezinegona sortzen diote Nafarroako historia gaur egungo maparekin ilustratzen duten liburuek. Horregatik, garaian garaiari egokitutako mapak publikatzen hasi zen Nabarlur blogean. Hainbat historialarik mapak eskatu zizkioten euren liburuetarako. Hori ikusita, erabaki zuen azken bi mila urteetako Nafarroako lurraldetasunak izan dituen aldaketak biltzea *Atlas Histórico de Navarra* (Nafarroako atlas historikoa) lanean.

“Historian adituak ez direnei begira egina da liburua, baina baita historia ikasten edota beste historia liburu sakonagoak irakurtzen ari direnei begira ere. Irakurtzeko oso erraza da, testuak ez baitira oso zabalak eta ez baitut gehiegi sakondu. Horretarako badaude beste liburu batzuk”, azaldu du Del Castillok.

Pello Eltzaburu Pamiela argitaletxeko editoreak hori bera nabarmendu du: “Autorea oso modu hurbilean eta didaktikoan gerturatu da *Nafarroa* deitu den eta deitzen den horretara. Irakurle askok ezustekoak hartuko dituzte”.

Liburua hiru ataletan banatua dago. Lehena Baskonia zaharraren ingurukoa da. Geografo klasikoen lehen lekukotasunetatik Iruñeko erreinua sortu arte. Del Castillok lehen geografoek deskribatutako mugen mapa eraman du liburuaren azalera. Garai hori hiru zatitan banatu du egileak: Baskonia erromatarren inperioaren garaia, barbaroen inbasioak eta Baskonia Akitaniako dukerria. “Gaur egun ezagutu duguna baino askoz lurralde zabalagoa zen. Ebrotik Garonara hartzen zuen. Gero Frankoak iritsi ziren, Orreagako gudua, eta Iruñeko erresuma sortu zuten”, azaldu du Del Castillok.

Iruñeko erresumaren sorrerarekin hasi eta gaur egun bukatzen da bigarren atala. Bertan Nafarroak izandako estatuaren eta horren lurraldeen garapena aztertu du Del Castillok. Kapitulu horretan ere irakurleak ezusteko ugari hartuko dituela uste du autoreak. “Nafarroako erresuma ez zen egungo Foru Komunitatea. Izen horrekin ezagutzen zen lurraldeak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Errioxa eta mugaz besteko lurraldeak hartzen zituen”. Hala ere, gaztelar eta frantsesen konkistak Nafarroako lurra mugatuz joan ziren.

“Publikazio askotan, garai oso zaharrak aurkezten dira gaur egungo maparekin. Hori erabat ilogikoa da”, kexatu da Del Castillo. Haren arabera, egun, Antso Azkarraren garaiko mapa da ezagutzen den bakarrenetarikoa. Haren aburuz, ez dira historiari lotutako mapak zabaldu “historiografia ofizialaren aurka” egiten dutelako. Arrazoi beragatik uste du Del Castillok asmatu zutela mendebaldeko lurraldeen euskalduntze berantiarraren teoria. “Gaur egun, teoria hori ezeztatu egin da. Frogatua baitago VI. mendearen aurretik bazirela euskaldunak han”.

Atlasaren hirugarren atala euskararen lurraldeari eskaini dio. “Euskara da herri honen hizkuntza. Erromatarrak heldu zirenean latina ekarri zuten, eta euskaldunek erromantzeak izan zituzten baita ere: aragoiera eta gaskoia”. Euskararen atzerakada eta berreskurapena jaso ditu Del Castillok.

Hala ere, erromantzeei ere tarte bat eskaini die. “Iruditzen zait euskara mantendu izanaren arrazoietako bat foruak direla. Lege propioak izan ez dituzten lurraldeetan ia galdu dituzte berezko hizkuntzak, adibidez, aragoiera eta gaskoia”.

Lan zaharrei begira

Atlasa osatzeko, XX. mende bukaerako hainbat lan aztertu ditu Del Castillok. “Nafarroako mapa historikoen lehen lanak 1970, 1980 eta 1990eko hamarkadetan egin zituzten, besteak beste Gregorio Berak, Artetak eta Jose Maria Lakarrak. Mapa horiek eta haien eguneratzeak oinarri hartuta garatu dut nire oraingo lana. Kontuan izan ditut, gainera, historialari garaikideek egindako lanak”.

Liburua bukatzeko kronologia txiki bat eta Nafarroako eta inguruko erreinuaren genealogiak aurkeztu ditu autoreak. “Irakurleak laguntzeko jarri ditut. Dibulgazio lana baita atlasa. Uste dut elementu horiek lagungarriak izan daitezkeela”. Horiekin batera bibliografia espezializatua ere proposatu du. “Gaian gehiago sakondu nahi duenarentzat”.

Nafarroako lurraldetasunaren inguruan egin den lanik zabalena da Del Castillok osatutakoa. Historia artxibo zaharretatik berreskuratu eta interesa dutenek mapa errealagoak eskura izan ditzatela izan du helburu.